

Videoteca de Baketik, el Centro por la paz de Arantzazu

Baketik ha creado una videoteca de películas y documentales cuyo contenido tiene relación con la lucha por vivir y convivir éticamente. Su objetivo es exclusivamente educativo y no comercial. Baketik presta gratuitamente estas películas a quien lo solicite: centros educativos, grupos de tiempo libre, parroquias, ONGs, asociaciones de todo tipo, familias, cuadrillas de amigos/as... Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como ésta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido. En cada una de estas guías un/a colaborador/a de Baketik que ha visto la película ha elaborado dos de sus apartados: «temática» y las «preguntas antes y después de su visionado». Es la sugerencia que nos hace esta persona para ver esta película. Si quieres tú también puedes colaborar enviándonos tus opiniones sobre películas que te hayan gustado. (Más información en www.baketik.org)

Temática

Odio, cohabitación y justicia

Odio. La película presenta la historia de quienes han convivido con el odio en un conflicto destructivo grave y su apuesta por la superación de esos sentimientos.

Cohabitación. El documental describe el proceso personal realizado por los/as implicados/as en el genocidio de Ruanda para recuperar una convivencia: algunos/as olvidan, otros/as perdonan, otros/as se reconcilian...

Justicia. La película muestra la necesidad de justicia tras el genocidio ruandés. Justicia que engloba la memoria histórica y la herencia que se quiere dejar a las generaciones siguientes.

Sugerencias para ver y escuchar la película

Una película se puede ver y escuchar de muchas maneras. Ofrecemos unos puntos de referencia. Concretamente, sugerimos ver y escuchar la película...

...hacia adentro. Reflexionar sobre lo que la película nos sugiere en primera persona y sobre las preguntas que nos plantea en nuestra propia vida. No pretendemos buscar respuestas definitivas, atendemos a las resonancias que nos deja.

...hacia fuera. Promover un coloquio sobre la película en familia o en grupo. No se trata de llegar a conclusiones. Compartimos lo que hemos sentido y percibido e intentamos escuchar y entender la percepción diferente de los otros.

...no sólo con la cabeza, también con el corazón. Se trata de dejar por un momento a un lado los prejuicios ideológicos o ideas preconcebidas para que, al hilo de lo que nos cuenta la película, puedan hablar los sentimientos.

...y después de algún tiempo repensar. Estar atentos al poso que la película deja después de unos días. Ese «poso» es una impresión en la que se funden nuestra reflexión sobre lo que hemos visto y la vida propia que la historia cobra en nosotros/as.

Algunas preguntas...

...antes de la película

- Sobre el odio: ¿Qué es el odio? ¿Qué lo genera? ¿Qué consecuencias tiene?
- Sobre la convivencia: ¿Es posible volver a convivir con quien nos ha hecho sufrir?
- Sobre la justicia: En un conflicto, ¿qué es la memoria histórica? ¿Qué relación tiene con la justicia?


...después de la película

- ¿Qué hace posible que los victimarios del genocidio de Ruanda cometieran esos crímenes? ¿Qué supone hacer justicia? ¿Tiene que ser solo justicia punitiva o también socializadora?
- ¿Qué herencia quieren dejar las víctimas a sus hijos/as? ¿Cómo ayuda este deseo en el proceso de perdón y reconciliación?
- En la película se habla de memoria. ¿Puede haber una memoria compartida de víctimas y verdugos? ¿Es posible ver el dolor de la otra parte?

Con la colaboración de Pello Sarasua.

zeurekin eta besteekin bizitzeko zinema

Umurage



Umurage

Ficha técnica

TÍTULO ORIGINAL: Umurage.

REPARTO: Documental.

AÑO: 2009.

PRODUCCIÓN: Icarakuri, S.L.

DURACIÓN: 52 min.

PAÍS: España.

DIRECCIÓN: Gorka Gamarra; Jean Marie Mabarushimana, Sonia Rolley.

Sinopsis

Ruanda quedó completamente destrozada después de cuatro años de guerra, entre 1990 y 1994, y del genocidio que llegó a continuación. En 1994, en el espacio de cien días, cerca de un millón de personas fueron asesinadas. La puesta en libertad, en agosto de 2005, de presos de segunda categoría –de las tres establecidas según el grado de participación en el genocidio– tras haber confesado y pedido perdón, permite investigar los recorridos individuales de los supervivientes y verdugos desde el genocidio ruandés de 1994 hasta nuestros días. Algunos emprenden «el doble camino» previo a la reconciliación y/o a la cohabitación pacífica y otros no la admiten.

Baketik Arantzazuko Bake zentroko bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

Gaiak

Gorrotoa, bizikidetzeta eta justizia

Gorrotoa. Pelikulak gatazka suntsitzaile larri bat gorrotoa lagun izanda bizi izan duten lagunen istorioa erakusten du, eta sentimendu horiek gainditzeko hartu duten erabakia.

Bizikidetzeta. Bizikidetzeta berreskuratzeko, Ruandako genozidioa, alde batean nahiz bestean, bizi izan zuten lagunek egindako prozesu pertsonala erakusten du: batzuk ahaztu egiten dute, beste batzuk barkatu, besteak adiskidetu egiten dira.

Justizia. Filmak Ruandako genozidioaren ostean, justiziaren beharra adierazten du. Memoria historikoa eta ondorengo belaunaldiei utzi nahi zaien oinordetza biltzen ditu justizia horrek.

Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

...barrura begira. Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

...kanpora begira. Taldean edota familian elkarriketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gudan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

Zenbait galdera...

...pelikula ikusi aurretik

- Gorrotoari buruz: Zer da gorrotoa? Zerk sorrarazten du? Nolako ondorioak ditu?
- Bizikidetzari buruz: Posible al da berriz ere min eman dizun horrekin bizitzea?
- Justiziari buruz: Gatazka batean, zer da memoria historikoa? Ze lotura dauka justiziarekin?

...pelikula ikusi ondoren

- Zerk ahalbidetu zuen Ruandako genozidioa gauzatu zuten lagunek halako krimenak egitea? Zer esan nahi du justizia betetzea? Zigor-justizia izan behar du soilik edo baita gizarte-justizia?
- Zein oinordetza utzi nahi diete biktimek euren seme-alabei? Nola laguntzen du desio horrek barkamen- eta berradiskidetze-prozesu horretan?
- Filman memoriaz hitz egiten da. Biktimek eta borraroeak partekatutako memoria egon daiteke? Posible al da bestearen mina ikustea?

Pello Sarasuaren laguntzarekin.

Umurage

Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Umurage.

URTEA: 2009.

IRAUPENA: 52 min.

HERRIALDEA: Espainia.

ZUZENDARIA: Gorka Gamarra; Jean Marie Mabarushimana, Sonia Rolley.

AKTORE-ZERRENDA: Dokumentala.

EKOIZPEN-ETXEA: Icarakuri, S.L.

Sinopsia

1990 eta 1994 bitartean izandako gerrak, eta horri jarraitu zion genozidioak, guztiz suntsitu zuen Ruanda. 1994an, ehun eguneko epean, milioi bat inguru lagun hil zituzten. 2005eko abuztuan –genozidioan parte hartu zuten mailaren arabera– bigarren mailako presoak, onartu eta barkamena eskatu ondoren, aske utzi izanak bizirik iraun zutenen eta borraroen bakarkako ibilbideak 1994tik gaur egun arte aztertzea ahalbidetzen du. Batzuk bizikidetzeta baketsuaren aurreko «bide bikoitza»ri ekingo diote, eta beste batzuk ez dute onartuko.

Cine para vivir y convivir

Umurage



Umurage
Gorka Gamarra

baketik

Bake zentroa. Gatazken lantze etikoa

Centro por la paz
Elaboración ética
de conflictos



baketik

Bake zentroa. Gatazken lantze etikoa

Centro por la paz
Elaboración ética
de conflictos

943-251005

www.baketik.org